





Zubitxo

Artekarria

2020-2021





Ongi etorri Irura eta Anoetako Ikastolok elkarlanean eta ilusio handiz sortu dugun urtekari honetara! Urteak daramatzagu elkarrekin lanean, proiektuak partekatuz, ikastaro edo formakuntzetan trebatuz, kideak edo bestelako irteerak eginez... eta horren guztiaren isla da esku artean duzuen, Zubitxo aldizkaria.

Ibilbide luzea du aurretik egin eta oraingoa aurreko guztien jarraipena da. Lehen hiru hila labetero paperean jasotzen genuena, orain urtekari gisa argitaratu dugu, digitalki. Baina mamia lehengo berbera da: bi Ikastolek elkarrekin aurrera eramandako proiektuak, ikasturtean zehar egindako irteerak edo bestelako ekintzak, guretik badoazen ikasle, familia eta lankideei eskainitako agurra... horiek guztiak bildu ditugu Zubitxon.

Era berean, aitortu behar dugu aurtengoa ikasturte xelebrea izan dela eta ezin izan ditugula ohiko ekimen asko eta asko gauzatu, Covid19-ak eraginda. Segurtasun-neurri eta protokolo guztiak betetzearren, taldekatzeak eta burbuilak errespetatzearren eta guztion osasuna eta ongizatea zaintzearren, guretzat oso garrantzitsuak diren hainbat ospakizun bertan behera utzi edo moldatu behar izan ditugu, hala nola, Gabonetako eta Santa Ageda bezperako kantu eskea, Inauterietako jaialdia, Ikastolaren Eguna, ikasturte amaierako irteerak, etab.

Horrek guztiak, noski, eragina izan du urtekaria osatzeko garaian, baina bi Ikastoletako kide garen ikasle, irakasle eta familien lankidetzari esker lortu dugu betiko grinari eutsi eta ikasturtea ahalik eta hobekien aurrera eramatea.

COVID 19




BASAGAINERA IRTEERAK

Urtero bezala, Anoeta eta Irurako ikasleek Basagaingo Erdi Aroko herrixka bisitatu zuten. Bertan, Xabier Peñalver Aranzadi Elkarteko arkeologo eta ikerlariak Basagaingo herrixkaren inguruko azalpenak eman zizkien eta ikasleek indusketa-lanak nola egiten dituzten ikusteko aukera ere izan zuten. Anoetatik LH3 eta DBH1eko ikasleak izan ziren, eta Iruratik aldiz, LH6koak. [Irudietarako lotura](#)



Iraila



Covid 19a dela eta guraso bilera bereziak antolatu ziren kurtso hasieran. Hauen helburua ikasturte honen nondik norakoak adieraztea zen. Egoera berriak nola eragingo zigun egunerokotasunean gurasoei ahalik eta argien azaltzen saiatu ginen: nondik sartu/atera, higie-ne neurri orokorrak, etxean hartu beharreko neurriak, musukoaren erabilera, patioen banaketak, eguneroko funtzionamendurako jarraibideak... oro har bilerak ongi joan ziren eta hasteko ilusioa eta baita kezka ere sumatu zen.

IKASTURTE HASIERAKO PROBENTZIOA



Urtero bezala, aurten ere saio bereziak antolatu genituen Irura eta Anoetako Herri Ikastole-tan ikasturteari hasiera eman eta ikasleen arteko harremanak sendotu asmoz. Tamalez, Covid19-aren eraginez ezin izan genituen beste urteetan egindako irteerak antolatu, osasun eta higie-ne neurriak zaintzeko zailtasunak direla eta. Hala ere, ikasleek gelan bertan askotariko dinamika eta jolas ezberdinak egin zituzten, hala nola, ezaugarri positibo-en dinamika, adimen anitzen inguruko saioak, norberaren garapen pertsonalerako saioak, mendi irteerak hainbat geletan... Hasiera honetan ez ezik, ikasturteak aurrera egin ahala ere probentzioarekin jarraitu dugu Ikastolako kide guztien arteko elkarbizitza zaindu eta hobetzeko.



BELDURRA ETA TRISTURA EMOZIOAK IKASTURTE HASIERAN HAUR HEZKUNTZAN


Ikasturte hasieran Haur Hezkuntzako irakasleok gai honen inguruko formazioa jaso genuen. Ikastaroa on line izan zen eta Amaia Ayerra izan zen emailea. Konfinamenduaren ondorioz haurren emozioak nola landu eta tratatu, begirada non ipini eta horretarako hainbat estrategia jaso genituen.

IRURAKO SANMIELAK

Aurten "sanmielak" ospatu gabe geratu baginen ere Irurako Ikastolan kuku txiki bat egin genion "herensugeari". Ostiral arratsaldean eskulan berezia egin genuen: herensuge erraldoia margotu. Sanmielak gogoratu eta hurrengo urtean ospatuko ditugulakoan agurtu genuen.

[bideoa](#)





IKASTURTE HASIERAKO BILERAK

Ikasturte hasiera berezi honetan urrian zehar ohikoak diren geletako bilerak egin ziren bi ikastoletan. Komunikazioa bermatze aldera ikasturtearen ildo nagusiak gurasoekin konpartitu genituen, gurasoei aukera emanez entzundakoen inguruan galderak edota iradokizunak egiteko. Bilera horiek gelaz gela egin ziren eta tutoreek gidatu zituzten.



EUSKAL JAIA ANOETAN

Aurten ere herriko eragileen artean Euskal Jaia antolatu zuten Anoetan. Covid 19-aren eraginez, ordea, egitaraua aldatu beharrean aurkitu ziren eta festa egun bakarrean egin ordez, hainbat ekitaldi antolatu zituzten ostegunetik igandera bitarte. Horien artean, nekazari eta artisauen azoka antolatu zuten igandean eta Ikastolak ere bere postua jarri zuen bertan Ikastolako produktuak edo materiala saltzeko.



ZUBIMUSU IKASTOLAK BERE KILOMETROAK JAIA OSPATU DU

Kilometroak Astea egitarauaren baitan, lekukoaren emate ekitaldia ospatu zuten Zizurkilgo Joxe Arregi plazan, 11:00etan hasita. Herrigintza, kultura, hezkuntza, herritartasuna, transmisioa eta erresilientzia oinarri hartuta Kilometroak Astea izeneko egitaraua antolatu zuten, irailaren 28an hasita eta urriaren 4an bukatuz.

Hemen [bideoa](#).

Kilometroak Festaren harira, 1998ko Kilometroko pasadizoak ere jakinarazi zizkigun gurean lanean ari den eta orduan koordinatzaile ardura izan zuen Kontxi Luluagak. Orduan lau Ikastolen arteko elkarlanean antolatutako festa izan zen: Irura, Laskorain, Uzturpe eta Anoeta. Kilometroen izpiritua berreskuratzeko balio lezakeen elkarrizketa duzue [bertan](#).



SEXUNEKO FORMAKUNTZA IKASLE ETA FAMILIEKIN



Anoetako eta Irurako Ikastolok formazio saioak (Sexune taldeko adituak) antolatu genituen 0-7 urte bitarteko haurren gurasoentzat alde batetik, eta 8-12 urteko haurren gurasoentzat bestetik. Maila batzuetako ikasleek ere lanketa hau egin zuten geletan Sexuneko espezialistekin. Era berean, irakasleek ere jaso zuten formazioa ikasturtean zehar. Horrela,

Ikastolako komunitate osoak sexualitatearen inguruko lanketa egiteko aukera izan du, sexu-ezaugarri orokorrak eta zenbait kontzeptu eta gai ezagutuz. Horrez gain, programaren barruan HH eta LHko gurasoei zuzendutako aholkularitza pertsonalizatua ere eskaini genien urriaren 30ean eta azaroaren 5ean.

Ikasleen eta irakasleen balorazioak positiboak izan ziren egindako lanaren inguruan.



AZAROA



GAUBELTZA

Azken urteotan, Euskal Herriko hainbat herritan Gaubeltza festa berreskuratzen ari dira, izan ere, udazkenetik negurako egun gero eta ilunagoen bueltan, erritu desberdinak egin izan dira Europa osoan, baita Euskal Herrian ere. Horre-

gatik, Irura eta Anoetako Ikastoletan ere eskaini genion gure tartetxoa aspaldiko ohitura honi. Iruran ekintza desberdinak prestatu zituzten urriaren

31ren bueltan, hala nola, abestiak, bideoak, eskulanak... Anoetan eta Iruran ere egin zituzten eskulanak LH3 eta 4ko ikasleek, eta 5 eta 6koek, aldiz, beldurren dinamika egin zuten: "Zeri diogu beldurra? Zerk izutzen gaitu gehien?"

Irurako LH5eko ikasleek bertsoa osatu zuten eta LH3 eta LH4ekoek aldiz edalontzien jolasa ikasi zuten.



GURASO ESKOLA



Anoeta eta Irurako Ikastolen lankidetzan oinarrituta, ikasturte honetan ere Guraso Eskolari jarraipena eman zaio. Komunikazio Ez Bortitzak hartu zuen tokia Nerea Mendizabalen eskutik. Azkeneko hamarkada honetan eskola eta familiaren arteko harremana lantzen ari da etengabe. Izan ere, Komunikazio Ez Bortitzak enpatiaz entzuteko gaitasuna lantzen du, norberaren eta bestearen beharrak aintzat hartuz.

AHOBIZI ETA BELARRIPREST IZATEKO AUKERAREKIN BI IKASTOLAK BAT EGINDA

Gure hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozial honetan parte hartu genuen Irurako eta [Anoetako Herri Ikastolek](#). Izena ematera animatu genituen gure familiak. Denok belarriprest edo ahobizi izan ginen!!!

EUSKARALDIA
2. EDIZIOA



KIVA EGUNA



KIVA IKASTOLA
IZATEN
JARRAITZEN
DUGU!

Nahiz eta ikasturte
berezia izan...




Azaroaren lehen astean Kiva eguna ospatu genuen. Kiva ikastola izatea zer den bergogoratu genuen. Eskola jazarpenaren aurkako programa honetan murgilduta saio batzuk egin genituen honen garrantziaz jabetzeko. [Bideoa](#)

FAMILIA ZUZENBIDEAREN FORMAKUNTZA



Irura ikastolako langileok familia zuzenbidea formakuntza jaso genuen Euskadiko Kooperatiba Goren Kontseiluko letratua den Santi Merinoren eskutik. Erantzukizun zibila eta familia zuzenbidea izan ziren landu genituen gai nagusiak.

abenduak



EUSKARAREN EGUNA OSPATU GENUEN

Anoeta eta Irurako Ikastoletan ikasturte honetan ere EUSKARAREN EGUNAK toki berezia hartu zuen gure egutegian. Abenduaren 3an eta 4an hainbat ekimen aurrera eraman genituen:

Aurten ez ziren ikusi ikasleen ilarak pintxoak erosteko, buruhandiak, megafoniako musika... baina ahal izan zen neurrian aurrera egin zuen ospakizunak. Ea hurrengo ikasturtean normaltasunez ospatzerik badugun!!!



ikasleek osatutako bideo emanaldia, bingo musikatua, Juan-txo Arakama eta Porrotxen bisita, [bideo](#) montajea, pregoiaren irakurketa eta ... Eskerrak eman hain txukun eta tajuz antolaketan aritutako Euskara Batzordeko ikasleei, HIZPROko arduradunei eta nola ez gure gonbidatuei. **ESKERRIK ASKO!!!** [Euskaraz gehiago eta guztiekin!!!](#)



SAN TOMAS OSPAKIZUNARI TARTE TXOA EGIN GENION

Ohiturari ez genion bizkarra eman eta abenduaren 21 guztietan bezala, San Tomas ospakizunari tartea egin genion. Anoetako Herri Ikastolako DBH4koek txorixo eta halal pintxoak banatu zituzten Anoetan eta baita Irurako Ikastolan ere.




AGENDA 2030 MARTXAN DA

Agenda 2030eko ikasle eta irakasle ordezkariak lanean aritu ziren. Ikasturte honetan, “garapen iraunkorreko helburuak” gaia zabala bada ere, Anoetako Udal ingurumen teknikaria den Maddi Sarasola bidelagun hartuta, Anoeta herri iraunkorrako bat garatzeko asmoz ekin zioten elkarlanari.



Irurako Ikastolan, sentsibilizazio saioak gustora burutu ziren. Oka joku ezberdinekin hasi genuen aurtengo gaiaren erronka. Ekoliderrek, geletan aurkezpenak egin zituzten eta “garapen iraunkorreko helburuen” ezagutarazte bideoak eskaini zituzten.



DBH3KO IKASLEEK ELKARLANEAN IKASTOLAKO HORMIRUDIA SORTU ZUTEN

Anoetako Herri Ikastolako DBH3ko ikasleak izan ziren elkarlanean eta margotzeko teknikak erabilia Ikastolaren ondoan dagoen Auditorioko pareta margotu zutenak. Ikertze taldearen gidaritzapean eta Anoetako Udalaren inizatibaz, gure ikasleak zerotik abitu ziren eta gai izan ziren hormirudia txukun eta modu ikusgarrian amaitzeko.

Horretarako artista batzuen ezinbesteko laguntza izan zuten: Arantxa Orbegozo, Eider Epelde eta Nerea Linazasoro. Arlo artistikoak bere garrantzia izateaz aparte, taldean aritzea elkarbizitza sustatuz ere azpimarratu behar da. Ikasleak eta artistak zoriondu lan bikaina egin baitzuten.



OLENTZE-ROREN ETORRERA

Urteroko legez, aurten ere Olentzeroren bisita jaso genuen Irurako Ikastolan. Covid 19aren eraginez bisitaldia azkarra izan bazen ere haurren poza eta ilusioa berdina izan zen. Idatzitako eskutitzak jaso ondoren muxu potolo bategu agurtu ziren gabon gau arte. Hemen [bideoa](#).

BERTSO EMANALDIA

Aurten ere, Irurako Ikastolan eta Anoetako Herri Ikastolan BERTSO ESKOLAKO saioak mar txan izan dira LH5 eta 6ko mailetan. Iruan, Lehen hiruhilekoari amaiera emateko, Haritz Mujika eta Iñaki Urrestarazu izan genituen gure artean eta bertso emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuen. Anoetan, aldiz, maiatzaren bukaeran saio bereziak egin ziren.

"GABONAK ETA KONTSUMOA" TAILERRA TOLOSAKO INGURUMEN ZENTROAK ESKAINIA

Irurako Ikastolak eta Anoetako Herri Ikastolak urtero bezala ESKOLA AGENDA 2030 proiektuaren barruan, "Gabonak eta Kontsumoa" tailerrean parte hartu zuten, Haur Hezkuntza 3ko gelan. Hondakinak gutxituz, natura zaintzaren helburuarekin, eskulanak egin zituzten.

Apaingarri dotoreak egin zituzten gure artista txikiek!!



baso eskola



Azken aldian geroz eta gehiago entzuten ari gara Baso Eskolen inguruan, naturarekin harremanetan hezteak haurren garapenerako duen garrantziagatik. Hain zuzen ere, Baso-eskola naturan garatzen den hezkuntza-eredua da. Haurrek basoan edo ingurune natural batean jolastu, ikertu eta ikasten dute eta helduek behatzaile papera jokatzeko bertan, haurrak lagunduz baina ez gidatuz. Proiektu honek helburu bikoitza du: alde batetik, haurraren garapen integrarean positiboki eragitea, naturak eskaintzen dituen onurak aprobetxatuz; eta bestetik, natura bera eta bioaniztasuna zehazki babestea, parte hartuko duten haurrek eta eskola-komunitate osoak ingurumen kontzientzia hartuko dutelako.

Hauek dira baso-eskolaren ezaugarri nagusiak:


- Natura bihurtzen da ikasteko gunea. Eskolatik gertu dagoen natur-gune bat erabiltzea proposatzen da.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako haurrei zuzenduta dago, batik bat.
- Hezkuntza **edukiak curriculum ofizialean oinarrituak** egoten dira eta **natura bera izaten da baliabide didaktiko** garrantzitsuena.
- **Ohikoa da jolas librea ikasketa metodologia nagusia izatea.**
- Azkenik, **elkarrizketa maila guztietan sustatzen da:** ikasleen artean, irakasleen artean, ikasle-irakasleen artean eta baita gurasoekin ere. Entzute aktiboaren pedagogia hau oinarritzakoa da haurrek dituzten interes eta bertuteez jabetzeko, emozio eta adimen-garapena ematen den bitartean.

Anoetako Herri Ikastolak eta Irurako Ikastolak ere proiektu honen inguruan gehiago jakin nahi genuela eta, Kutxa Ekogunekoekin harremanetan jarri ginen Baso Eskola proiektuaren inguruko formazioa jasotzeko asmoz. Anoetatik 11 irakaslek eta Iruratik 4 irakaslek jaso genuen Kutxa Ekogunekoekin eskutik 15 orduko formakuntza.

Gure hezkuntza proiektuarekin bat egiten du eta horregatik proiektu pilotuan parte hartzea erabaki dugu. Bertan parte hartzeko ezinbestekoa izan da bai Anoetako eta Irurako Udalen laguntza, euren eskaini baitizkigute herriko natur-eremuak proiektu honetan murgildu ahal izateko eta pilotaje saioak ikasturte amaieran aurrera eramateko.

Ikasturte amaieran, pilotaje saioen balorazioa egin eta datorren ikasturtean proiektuarekin jarraitu ala ez erabakiko dugu.

urtarila



NEREA MENDIZABALEN ESKUTIK, FORMAZIO SAIOAK GURASOENTZAT

Aurtengoan hiru saio izan dira guztira Irura eta Anoetako gurasoei begira. Lehenengoa azaroaren 10ean izan zen, bigarrena eta hirugarrena, berriz, otsailaren zehar gauzatu ziren.

Saio horietan Komunikazio Ez Bortitzaren oinarrien errepaso laburra egin eta Covid-19aren egoerak ekarritako bizipenak aztertu ziren. Seme-alabek, nola bizi dute Covid-19 egoera? Nola lagundu sortzen zaizkigun emozioak (beldurra, culpa, ...) kudeatzen? Nola lagundu egoera emozionala zaintzen? Horiek eta beste hainbat gai lantzeko aukera izan zuten gurasoek.

SOLASALDIA JAUME FUNES HEZITZAILEAREKIN

Anoetako Herri Ikastolak eta Arizmendi Ikastolak elkar-lanean nerabezaroan aditu den Jaume Funes psikologo, hezitzaile eta kazetariarekin solasaldia antolatu genuen bi egunetan banatuta. Nerabeak bizitzen ari diren etapan euren bidelagun izateko orientabideak jasotzeko oso lagungarri izan zen.

Eñaut Aiartzagüena Bravo ilustratzaileak marraztutako binetak ikusteko [esteka](#).

Solasaldia ikusteko [esteka](#).



Jaume Funes
NERABEAK

Arizmendi
Ikastolak eta
Anoetako Herri
Ikastolak
antolatutako
hitzaldiko 9
zertzelada.

DISLEXIA-ON FORMAZIOAK

2018-2019 ikasturtean Tolosaldeko zenbait ikastetxeekin batera, Irurako eta Anoetako ikas-
tolek, DISLEXIA ON egitasmoaren berri jaso eta parte hartzea erabaki zuten.

DISLEGIren (Gipuzkoako Dislexia Elkarte) egitasmoa da eta aurrera eramateko NER GROUPen dirulaguntza jasotzen du. Kooperatiba enpresa batzuk osatzen duten taldea da eta beraien % portzentai bat (diru kopuru bat) ekintza sozialetara bideratzen dute. DISLEXIA ON egitasmoaren berri jaso zuten eta finantziaztea erabaki zuten.

Orain arte diagnostikoan murgildurik aritu gara eta horretarako Prodiscat-etik (Katalunian dislexia de-
tektatzeko erabiltzen den prozesua) ateratako gal-
detegia pasa zitzaion 4 urtetik 11 urte arteko ikasle
guztiei. Segidan Dislegi elkartetik diagnostikoaren
emaitzaren inguruan aholkularitza jaso genuen.



otsaila



INAUTERIAK BERRASMATZEN

AURTENGO SANTA AGEDA ERE OSPATU GENUEN




Aurtengoan modu berezian ospatu genituen Inauteriak bi Ikastoletan, baina hala ere izan genuen mozorrotzeko eta jai giroa goxatzeko aukera. Urtero egin izan dugun jaialdia aurtent bertan behera geratu zen eta horren ordez Ostegun Gizen goiza baliatu genuen ikasleek eta irakasleek gure festa egiteko. Goizean Ikastola aireportu bihurtu genuen eta gure ikasleei harrera berezia egin zieten azafatek, pista arduradunek, informazio langileek, seguritateko arduradunek... Ohiko txistorra pintxoak ere jan genituen. Ondoren, DBH4ko aurkezle turisten eskutik herrialde ezberdinetan zehar [bidaia](#) egin genuen: Afrika, Hawaii, Samoa, Antzinako Grezia, Txina... maila guztietako ikasleek eta irakasleek euren gela apaindu eta emanalditxoak prestatu zuten online jarraitu ahal izateko moduan. Anoetako [argazkiak](#).

Iruran ere [Ostegun Gizen](#) egunean ez-ohiko jaialdia burutu genuen, oraingoan ikuslerik gabe. Gure Joxek kolesterola eta tentsio altua zuela eta medikutara joan zen, honen gomendioak jarraituz kirola egiten hasi zen baina gustuko kirola aurkitu nahiean aukera desberdinak probatu zituen. Aurtengo gaia "kirola" izan zen denetariko kirol eta kirolariak parte hartu zuten emanaldian: txirrindularia, mendizalea, pilotaria, break dance, dantzariak... LH6ko ikasleak aritu ziren aurkezle lanetan. Hona hemen [bideoa](#).



Urtero bezala Anoetako Herri Ikastolan eta Irurako Ikastolan Santa Ageda bezpera ospatu genuen. Horretarako kideak ekimenak antolatu genituen. Alde batetik, LH5eko ikasleak LHko behe maila-tara joan ziren festaren nondik norakoak azaltzera eta elkarri koplak abestu zizkieten. DBH4ko Euskal Kulturako ikasleek, aldiz, DBHko etapetara jo eta Santa Agedaren ospakizunaren historia azaldu zieten beren ikaskideei. Ekintzak balio izan zuen gurea den eguna gogoratzeko eta euskal kulturari errepasoa eta bultzada emateko. HH eta LH koek patioan elkartu eta distantziak errespetatuz kantuan aritzeko aukera izan zuten. Bertsolaritza saioetan koplak asmatu eta usadioa den bezala arratsaldean bertan abesteko tarteak izan genituen. Hona hemen Anoetako bideoak ikusgai:

[bideoa1](#), [bideoa2](#)





BI IKASTOLEN OHIKO BATZARRAK



Abenduaren 16an Irurako eta otsailaren 24an Anoetakoaren urteko batzarrak burutu ziren. Bertan bildutakoek (kasuan kasuko Udala, guraso, zuzendaritza eta langileak) aurreko ikasturteko kontuak eta ikasturte honetakoak ontzat eman zituzten. Ikasturte berriko plan pedagogikoaren berri eman zen eta bildutakoak datoreen ikasturtea normaltasun batean izateko ilusioz agurtu ziren. Aipatu Anoetako Ikastolak lehenengo baimena jaso zuela Kooperatiba integrala izateko urratsak ematen hasteko.

martxoa



MARTXOAK 8, ALDARRIKAPEN EGUNA IKASTOLAN

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko eguna ospatu zen bi Ikastoletan. Iruran herriko ekintzarekin bat eginenez, Lilatoierako kartelak prestatu zituzten. Emakumea eta kirola gaia landu zen gela guztietan. Prestatutako kartelak gelan aurkeztu ostean, herriko hainbat puntutan jarri ziren ikusgai. Astelehenetan, egunean bertan, geletan ere hainbat jarduera burutu zituzten eta egunaren garrantziaz hitz egin zen. Anoetan, aldiz, HHn Porrotxen **Gona gorria** bideoklipa erabili zuten hausnarketarako; LH 1 eta 2n Doraemoenen kapitulu bat ikusi eta nesken eta mutilen rola aztertu zituzten; LH 3 eta 4n gizonezkoek eta emakumezkoek izaten dituzten lanbideen inguruan aritu ziren eta LH 5 eta 6n aurkezpen bat prestatu zuten 13 emakume ospetsuei buruz. DBHn, aldiz, hainbat pelikula ikusi zituzten, mailaka: **Quiero ser como Beckham, Mustang, Figuras ocultas eta Las sufragistas**. Ondoren, Tutoretza saioan, ikusitako pelikulen inguruko hausnarketa eta lanketa egin zuten.




EUSKARAREN ERABILERAREN INGURUKO NEURKETAK


Euskara Elkarteko ikasleek neurketetatik ateratako ondorioak azaldu zituzten LH5-6 eta DBHko geletan. Izan ere, urteak daramatzate Ikastolako eremuan hizkuntzaren erabileraren neurketak egiten, bai ikasle eta bai gurasoenak. Ikasturte honetan egin dituzten neurketek adierazten dutenez, azken 10 urteetan gaztelarako joera handia ikusten da ikasleen artean.

Gurasoen kasuan, aldiz, emaitzek kontrakoa erakusten dute, hau da, 2020an duela 10 urte baino guraso gehiagok hitz egiten dute euskaraz.


Ikastola osatzen dugun kide guztiok gara egoera honen erantzule eta Euskara Elkartetik garbi adierazi zuten konpromisoa hartu zutela ikasturtean zehar euskara indartzeko ekintzak antolatzen jarraitzeko.




Irurako Ikastolan, urtez urte egindako neurketen ondorioz, antzeko egoera ematen ari dela ikusi da. Azken urte hauetako datuak aztertuta, ikasleen artean, euskararen erabileraren indizea mantentzen joan den arren, ikasturte honetan eman den beherakada nabarmena izan da, gaztelaren presentzia areagotuz joan baita. Irurako Ikastolak, orain arte bezala, euskararen erabileran eta kalitatean eragiteko ahalegina egiten jarraituko du, euskara eta euskal kultura sustatuz.



JOLAS GARAIA - GUZTIRA



apirila




BI IKASTOLAK KORRIKAREKIN BAT

Covid-19ak eraginda, aurten ez genuen Korrikarik antolatu, baina bi Ikastoletan ekimen txiki bat egin genuen Korrikarekin gogoratzen garelako adierazteko. Lekukoa gelaz gela pasatu zuten LH1etik DBH4ra bitarte. Gela bakoitzak euskararekin edo Korrikarekin lotutako mezu bat idatzi eta kutxan sartu zuen, ondoren hurrengo gelakoei pasatzeko. Argitxo ere gelaz gela ibili zen euskararen garrantzia azpimarratuz.

Horrez gain, goizean eta arratsaldean ikasleak gelara sartu aurretik, Korrikako abestiak jarri genituen bozgorailuetatik eta Euskara Elkarteko ikasleek antolatuta, "Korrikahoot" lehiaketa egin zuten LH3tik gorako ikasleek.

Korrikari eman genion hasiera xumea ikusteko, sartu [hemen](#).



AGENDA 2030

Aurtengo Agenda 2030eko gaia IKASTETXE IRAUNKORRA, HERRI IRAUNKOR BATEAN denez, geletako Agenda 2030eko ordezkarien laguntzaz, 2030erako epea duten Garapen Iraunkorreko 17 helburuak ezagutu eta lantzen aritu ziren ikasleak bi Ikastoletako etapa guztietan: HHkoek ipuin euskarrian,

LH eta DBHkoek taldeko hausnarketa eta jolasen bidez.

Ikastolako nahiz herriko ahuleziak aztertu eta konpromezuak adostu zituzten.



LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko eguna ospatu genuen Irurako Ikastolan. Aldez aurretik ikasleek gelara ekarritako liburuen irakurketari tarte eman genion patioan. Urtero bezala kiku txiki bat egin genion egun honi. Osasun aginduak betez eta eguraldia lagun, ipuin desberdinak ikusi eta kontatzeko aukera izan genuen. Guraso batzuk ere animatu ziren gelara etorri eta ipuinak kontatzera. Egun berezia izaten da eta aste osoan zehar gurasoen bisitak jaso genituen.



TINKO ZINEMA IKASTOLAN

Aurtengo osasun egoera kontutan izanik ezinezkoa egin zitzaigun Tolosako Leidor zine aretora joatea. Ikastolan bertan ikusteko gonbitea egin ziguten TINKO koek eta ideia ona iruditu zitzaigunez hainbat pelikula ikusteko aukera izan genuen. HHko etapan **Arratoi Pirata** eta **Koko dragoi txikiaren abenturak** filmak ikusi zituzten.



maiatza

UDAL FOROA

Eskola Agenda 2030eko IKASTETXE IRAUNKORRA HERRI IRAUNKOR BATEAN gaiaren lanke-tako emaitzak bildu eta ikastolako ekoliderak, Irura eta Anoetako alkateekin eta Inguru-men teknikariarekin elkartu ziren. Bi-lera honetan, Ingurumen arduraduna den Edurne eta Tolosaldeko Ingurumen zentroko Saioa ere bertan izan ziren. Ikastoletako ikasleek hartu dituzten konpromezuak aurkeztu zituzten eta Udalek egindako eskaeren azalpenak eman zituzten. Bestalde, Anoetako Udalarekin elkarlanean zaborrarekin dugun arazoaren kontzientzia indartu nahi izan genuen. Horri konponbidea eman nahian, herriko plazan EROSKETA POLTSEN KANPAINAn gure aletxoa jarri nahi izan genuen.



BERTSO ESKOLAKO AZKEN EGUNA



Amaia Agirrerekin Bertsolaritzako azken saioa egin zuten bi Ikastoletako LH5 eta LH6ko ikasleek. Iruran bi bideo grabatu zituzten eta blogetan eskegi. Ikasturteari amaiera emateko ideia zoragarria.





IKASTOLAREN EGUNA

Maiatzaren 14 ean ikastolaren eguna ospatu genuen. Aurten egoera berezi hau dela eta betiko jaia alde batera utzi eta guztia berrantolatu behar izan genuen, hala ere, eguna ospatzea lortu genuen. Egunean zehar ekintza desberdinak burutu genituen; gelaz gela murala osatzen joan ginen baita photocall-ean argazkiak atera ere, musika, jolasa... beti ere osasun neurriak kontutan izanik. Arratsaldean, herriko "IRURA BIZI" elkartearekin bat eginez "hangoak eta hemengoak, denak bertakoak" lelopean giza katea egin genuen, Irurako zubian hasi eta Ikastolako aterperaino luzatu zen, bukaera polit bat emanez Ikastolan. [Bideoa.](#)



ekaina



ANOETAKO
HERRI IKASTOLA

IKASTOLAREN EGUNA

Ikastolaren Festa bigarren urtez segidan ezin izan dugu ospatu pandemia egoera dela eta. Hala ere, Ikastolako kirol batzordeak begi onez ikusi zuen aurreko Ibilaldi Neurtua antolatzea. Bi ibilbide izan ziren, bata motza eta bestea luzeagoa. Ikasle eta beren gurasoek aukera polita izan zuten Ikastolaren inguruko parajetan txango lasaia egiteko. Parte hartzea ia-ia hogeita hamar taldeetako izan zen. Eskerrak eman bertan izan ziren guraso eta ikasleei eta nola ez, antolatzen aritutako guztioi.

Argazkiak ikusteko [hemen](#) klikatu

Aurrekoaren segidan, DBH4ko ikasleei eta bere familiei ekimen goxoaren bitartez agurra egin genien. Ibilbide luzea eman eta gero Ikastolan, bes-telako jauzia emateko garaia ailegatu zaiela jakitun, omenaldia prestatu genien. Zuzendariaren agurrak, zume negartiaren landaketak, irakasleek dantzatutako aurrekuak, guraso, irakasle eta ikasleen elkarri emandako erregaluak, ... osatu zuten ekimena. Gurean emandako ibilbidearen azkeneko oroitzapena nahi izan genuen denon artean aurrera eraman eta uste dugu lortu genuela. Bakoitzak hartuko duen ibilbidean suerterik onena opa diegu Anoetako Herri Ikastola osatzen dugun guztiok.

Argazkiak ikusteko [hemen](#) klikatu

Bideoa ikusteko [hemen](#) klikatu





Irteerak

LH3 eta LH4 ko Ikasleek Leaburura egin zuten irteera. Ibarako Apattarreka industriagunetik abiatu eta zazpibidetatik barrena iritsi ziren Leaburura. Egun beroa baina zoragarria, elkarrekin pasa zutena!

HHko haurrak Iruran zehar ibili ziren; goizean mendi ibilaldia egin eta inguruko animaliak ikusi zituzten. Hamaiketakoia egin ostean, herriko parke desberdinetan jolastu eta merenderoan bazkaldu zuten egunari amaiera emanaz.

LH 5-6 koak, Larraitzen izan ziren, Aunsa-gaztelura igo eta bertan egun polita pasa zuten. Eguraldi aparta eta giro bikaina izan zuten, ikasturteari amaiera politta emanaz.

LH 1-2 koak; Gaztelura joan ziren eta egun ederra pasa zuten. Goizean iritsi eta mendi bueltatxo bat eman zuten. Ondoren, hamaiketakoia jan eta jolasean aritu ziren bertako frontoian eta parkean. Bazkaldu eta gero ere jolasean aritu ziren. Egun zoragarria igaro zuten!





ANOETAKO HERRI IKASTOLA

Irteerak

HH

Hernialdera irteera. Argazkiak [hemen](#) ikusi

LH

LH1-2koak Zestoako Ekain-Berrin izan dira; LH3-4koak, aldiz, Geta-riako Balentziaga museo bisitatu dute; azkenik, LH5-6koak Donos-tian izan dira Mitologik scape room-ean eta Araba parkean.

Ederki pasa dute guztiek! Argazkiak ikusteko, sakatu [hemen](#).

DBH


DBH1ekoak Arantzan izan dira eta herria bisitatu ondoren, mendi buelta bat emanez zuhaitz parkean ibili dira; DBH2koak Igantziko Irri Sarri Landera joan dira eta bertan via ferrata, zubi tibetarra eta tiro-linak probatu dituzte. DBH3koak Donostiako Kontxa eta Ondarretako hondartzetan izan dira piraguan ibiltzen. Azkenik, DBH4koek bi irteera egin dituzte: bata Debara piraguan eta paint ball-ean ibiltzera eta bestea Elizondora abentura parkean ibiltzera.

Irteeretako argazkiak ikusteko, sartu [hemen](#).



elkarrizketa

Anoetako Herri Ikastolako lankide den Carmen Esnaolari erretiroa hartzeko unea iritsi zaio. Hainbat eta hainbat urte daramatza irakaskuntzari eskainiak eta bere ibilbidea eta egindako ekarpenak gogorarazi nahi izan ditugu ondoko elkarrizketa honetan. Aldez aurretik, Anoeta eta Irurako Ikastolak osatzen ditugun kide guztion partetik gure eskerrik beroena opa dizugu, Carmen.



Carmen, esperientzia luzea duzu irakaskuntzan. Zehazki, zenbat urte igaro dituzu Anoetako Herri Ikastolan lanean? Zein etapatan?

Magisteritza bukatu eta Anoetako Herri Ikastolan hasi nintzen lanean, duela 39 urte. Plazako barrakoietan geunden, lehenengo urtean 5 urteko haurrekin egon nintzen; hurrengo urtetan EGB1 eta 2ko mailetan aritzen nintzen. Gero, eraikin honetara pasa ginenean, lehenengo urtean 3 urteko haurrekin egon nintzen. Hortik erdi ziklora pasa nintzen eta urte dexente 3. 4. eta 5. mailetan igaro nituen. Hezkuntza HH, LH eta DBH bezala banatu zenean LHko azken zikloan, hau da, LH5-6en aritu naiz.

Zein da zuretzat irakasle izatearen alderdirik onena?

Haurrekin duzun harremana, batik bat. Irakasleen artean egiten dugun elkarlana eta gure lanbideak eskatzen duen etengabeko formazioa ere pertsona bezala garatzeko balio handikoak iruditzen zaizkit.

Hala ere, une zailak ere izango zenituen, ezta?

Eraikin honetara etorri ginenean eskolak eta ikastolak partekatzen genuen. Pasilu berean parez pare eskolako eta ikastolako ikasle eta irakasleak egoten ginen. Ez dut esango harremana txarra zenik, baina bai hotza. Gero matrikula garaian ikusten ez zen lehia moduko bat ere bazegoen, ea nork lortu matrikula handiena...

Guk, ikastola txikia izanik, familia bat bezala funtzionatu dugu eta momentu zailak denen artean errazago pasatzen dira.

Hasierako urte haietatik gaur egunera, zein aldaketa nabari dituzu?

Garai hartatik hona klaustroa izugarri handitu da. Garai batean irakasle guztiak egunero goizean eta arratsaldean ikastolara sartzen ginenean, borobilean gelditzen ginen, gure arteko harrera egiten genuen, agurtu, nobedaderik balego esan... gaur egunak pasa ditzazkegu gure lankideak ikusi gabe.

Horrez gain, oso nabarmena da baliabide teknologikoetan izan dugun aldaketa. Haur guztiek eta gela guztietan ordenadoreak izango zituztela esaten ziguten, lanak ordenagailuz egingo zirela... baina guk egoera hori ez genuela ikusiko pentsatzen genuen. Begira non gauden....

Zure ibilbideko anekdotarik kontatuko zeniguke?

Anekdotak, horrela esanda orain ez datorkit burura, baina bai esan orain arteko nire ibilbidean ikastolak esparru oso handia hartzen duela. Ikastolako filosofiaren alde lana egin dut-dugu eta lan horretan aritu garen lagun eta lankideei esker ibilaldi polita burutu dut. Bidea ez da makala izan, Ikastola hedatu genuen herrian, publikazioaren aurrean Ikastolaren alde egin genuen erronka, Zilarrezko Q-a lortu genuen, elkarlanean lan itzela eginez, proiektu berrietan buru belarri ilusioz aritu gara. Hori guztia burutzean anekdota asko...

Eta etorkizunera begira, zein asmo duzu?

Beno, orain, beste lankideek bezala oporrak, baina niretzat luzeagoak izango dira. Ez dakit irailetik aurrera zer egingo dudan, baina disfrutatzeko asmoa badut, han edo hemen, aska...



Hamarkada oso bat
joanda geroztik
bi_urteko gelan hasi
zinetenetik.
Ibilbide berria
duzue aurretik
zorterikan onena
guztioi hemendik,
ez izan beldurrik,
ezta ere lotsik,
ez galdu iparrik,
nor bere bidetik;
Besarkada haundi bat
gure partetik. (bis)

LHbkoei agurra

Urtero bezala agur esateko garaia iritsi da gurekin 10 urtez egondako taldeari. Istorio eta bi-
zipen ugari tarteko. Hasiko duten ibilbide honetan zorte handiena opa diegu eta jakin Irurako
ikastolako ateak beti zabalik aurkituko dituzuela. Argazki gehiago Blogetan aurkituko dituzue.
AGUR ETA ZORTE ON IBILBIDE BERRI HONETAN !!!!!!!

DBH 4 bukatu eta
jakinik azkena dela
Anoetako Ikastolatik
jadanik bazoaztela
badakigunez hori lortzeak
lana eskatu duela
benetan esan nahi dizuegu
zuetaz harro gaudela.

Orain oporrak gozatu eta
udara lasai igaro
berriro ere zertan saiatu
izango da aurrerago
badituzue gero zeregin
eta erronka gehiago
onena opa nahi dizuegu
mundua zuen zain dago.

Anoetan, 2021eko ekaina



DBH4KO IKASLE ETA FAMILIEI MEREZITAKO AGURRA ESKAINI GENIEN

DBH4ko ikasleak eta haien familiak ekainaren 13an agurtu
genituen ekimen goxoaren bitartez. Ikastolan ibilbide luzea
egin eta gero, bestelako jauzia emateko garaia ailegatu zaie-
la jakitun, omenaldia prestatu genien. Zuzendariaren agurrak,
zume negartiaren landaketak, irakasleek dantzatutako aurre-
kuak, guraso, irakasle eta ikasleek elkarri emandako opariek...
osatu zuten ekimena. Gurean egindako ibilbidearen azken
orotzapena denon artean aurrera eraman nahi izan genuen
eta uste dugu lortu genuela. Ea aurrerantzean hemen izan du-
zuen jatortasunak zuekin jarraitzen duen. Bakoitzak hartuko
duen ibilbidean zorterik onena opa dizuegu Anoetako Herri
Ikastola osatzen dugun guztiok.
Argazkiak ikusteko [hemen](#) klikatu
Bideoa ikusteko [hemen](#) klikatu

